

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

42. zk. 1996ko ekaina


geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27

EUSKARAZ 96




EKAINAK 16 AMURRION



EUSKARA
GUZTI ZONA

Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...



... Jadanik ez bazarete elkarrekin ongi konpontzen...



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



... Metodoak huts egiten badizu...



... Atzeko tropela utzi eta aurrera jotzeko prest bazaude ...



... eta batez ere ikasketekin duzun jarrera aldatu nahi baduzu ...



Klaseak euskaraz

BBB (EGB)

UBI (COU)

OHO (BUP)

LH (FP)

Uztailetik aurrera
zabalik

landaburu



AKADEMIA

GEU

BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea

(Francisco de Vitoria
Institutuaren atzealdean)



12 09 50

909 42 88 36

Zenbait gogoeta hiesari buruz

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

Erredakzio- batzordea:

LEIRE LOPEZ DE
 ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrazkiak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.
 (ZUBILLAGA, OÑATI)

1981. URTEKO LEHEN HILABETEAK

ezingo ditugu berehalakoan ahaztu: "San Franci-
 sco aldeko hiru gizon homosexualek bakterio
 ezohiko batek sortutako Neumonia dute".

Hori izan zen epidemiologia zaintzako
 zerbitzuak erne jarri zituen albistea. Urte
 gutxiren buruan gaisotasun horren sortzailea
 GIB (Giza Inmunoeskasiaren Birusa) izeneko
 birusa zela jakin genuen. Ipar Amerikakoen
 beste nabarmenkeria bat gehiago besterik ez zela
 izango pentsatu genuen, bazirudien hori guztia
 oso urrun geratzen zitzaigula Ozeanoaren beste
 aldean; hemen ez zaigu ezer gertatuko. Baina ez
 genuen denbora luzea behar izan jabetzeko
 gaisotasun arraro hori zuten lagunak gure artean
 ere bazirela.

Prebentzioaren gaiari heldu genion eta behin
 eta berriz errepikatu dugu ez dela ona drogak
 kontsumitzea, baina batzuk horretan tematzen
 badira neurriak hartu beharko dituzte:
 "Injektatzeko erabiltzen diren xiringak ez
 lagunarekin banatu". Beste batzuei esan beharko
 diegu harreman homosexualen bidez ezin
 daitezkeela haurdun geratu baina, hala eta guztiz
 ere, preserbagailua erabili behar dutela kutsa ez
 daitezen.

Hau guztia gutxi gora-behera menpean hartuta
 gurela zirudienean, birus hau bereziki gazte
 heterosexualen artean transmititzen ari dela
 ohartzen gara. Tira, gazteek ere latexko funda jar
 ezazue!

Konnotazio sozial oso garrantzitsuak dituen
 gaisotasun baten aurrean gaude. Mediterranear
 arroan, gu barne gaudelarik, kutsatutako guztien
 %70 injekzioz hartutako droga
 kontsumitzaileak dira edo izan dira,
 honek gizartearentzat dakarren
 guztia erekin.

Hori dela era, bestelako patologietan
 zentzurik ez luketen zerbitzuak
 sortzea ezinbestekoa da: harrera eta
 laguntasun zerbitzuak,
 elikagaietarako eta botiketarako
 laguntza zerbitzua eta abar.

Hiritar Mugimenduaren partaide

garenok izan behar dugu horri erantzuna eman
 behar diogunak, bai gertutasuna eta enpatiatatik,
 bai gaisoak, kaltetuak eta profesionalak lantalde
 bateratuetan elkar ditzakegulako. Honek ez
 dakar instituzioek GIB-HIESak jota daudenekiko
 ardura alde batera uztea. Berauek izan beharko
 dute, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten
 erakundeei beharrezkoak diren errekurtso
 ekonomikoak emango dizkietenak.

Argi izan behar dugu Hiesak eta bere
 tratamenduak milioi dolar asko eta asko
 mugitzen dituela. Alde batetik industria
 daukagu: pilulak saldu eta etekinak lortzea da
 bere helburu nagusia; bestalde administrazioa
 dago, zeinak gastuak gutxitzea duen helburu; eta,
 azkenik, kaltetuak ditugu. Azken hauek,
 zilegizkoa iruditzen zaidanez, deskubritzen diren
 produktuak ahalik eta azkarren bere esku izan
 nahi dituzte. Hiritar Mugimendua osatzen
 dugunok epailearen bandera hartu eta exijitu
 behar dugu, beharrezkoak diren presio-neurrien
 bitartez, kaltetuen helburuak betetzea. Ez dugu
 ahaztu behar profesionalen eta gizartearen
 betebeharra osatzea dela, eta sendatzea lortzen
 ez dugunean gaisoak zaindu eta lagundu beharko
 ditugu.

Pertsona orok du bizitzeko eta bizitzen
 segitzeko beharrezko dituen bitartekoak berak
 aukeratzeko eskubidea, bai eta sufrimendu eta
 minik gabe duintasunez hiltzeko eskubidea ere.

PEIO LOPÉZ DE MUNAIN
HIESAREN AURKAKO HIRITAR KOMISIOA



gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:



6.000 Aleko Tirada
 Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen
 bertan adierazitakoen erantzukizunik



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
 diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

Telebista aniztasuna

GASTEIZEK baditu jadanik bertakoak diren bi telebista. Hala ere, bi kateen sorrera ez zen erraza eta lasaia izan. Apirileko alean "Gasteizko guda katodikoa" erreportaiari adierazten zena kontuan izanik, bi kateen arteko liskarra oraindik orain puri-purian dago. Momentuz, ziur dakiguna hauxe da: bi kateek emititu emititzen dute. Beste kontu bat litzateke Gasteizko etxe eta auzo desberdinetan jasotako seinalearen kalitatea -zenbait lekutan ezin dira ondo sintonizatu- eta euskarak telebista-saiotan betetzen duen tokia aztertzea. Bertoko eta kanpoko telebista kateen eskaintza kontuan izanik, nola ikusten dugu gasteiztarrok telebista lokalen garapena?

Sintonizatzen dituzu Gasteizko telebista lokalak?

Kanal gehiagoren premia ikusten al duzu?



KOLDO LARRURI
langilea

1.- Bai, batzuetan bai. Beti ez, baina noizbehinka ikusten ditut. Eta egia esan primeran dago hiriko berriak jasotzea.

2.- Kanal gehiago izatea ondo ikusten dut baina gaur egun daukagunarekin nahikoa dela uste dut.



Bertsoak

aurtengo txapelak

EGILEA:
GoRka Etxabe
DOINUA:
Zortziko nagusia

Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Ari zaigula izar berri bat sortzen Araban, zeruan hemen ez dela gauza normala bertsolaritza munduan Inbidiak bazterturik utzi ta ikasi zure onduan jabe aparta aurtengo txapelak Iriondoren buruan

Kontatu nahi dut GEUren bidez behin entzuna berari Legazpin pertsona egin zela Gasteizen bertsolari Esan beharra dago oraintxe hemen hasi zen kantari eskerrak eman behar dizkio Arabako eskolari



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ



MIRELLE SANZ
langabea



KAROLINA ABAD
ikaslea



MARTA LARRUZZEA
ikaslea



AITOR LAMARIANO
kazetaria



TXESTO
KASTRESANA
gidaria

1.- Egia esan oraindik ez nekien hasiak zirenik emititzen. Zer edo zer entzun nuen baina...

2.- Nahiz eta Gasteizko telebista izatea ondo iruditu, nire iritziz kanal gehiegi dauzkagu

1.- Ez, normalean ez ditut kanal horiek sintonizatzen. Alde batetik telebista gutxi ikusten dudalako eta beste aldetik denborarik ez dudalako.

2.- Ezta pentsatu ere, nahikoa da ditugunekin. Gainera, telebista-merkatua beteta dago.

1.- Ondo iruditzen zait hiriko berri emango digun kanal bat izatea baina nik oraindik ez dut ezagutzen. Beste kateak ikusten ditut.

2.- Ez. Edozein gauza ikusi ahal izateko hamaika telebista dauzkagu eta kanal berriek eskainiko digutena ia-ia berdina izango da

1.- Bai, normalean sintonizatzen ditut eta ondo iruditzen zait telebista lokal bat izatea hemengo berriak jaso ahal izateko.

2.- Ez dakit, ni kazetari naizenez ondo ikusten dut eskaintza handiagotzea.

1.- Bai, abian jarri zituzten unetik sintonizatzen ditut. Nire ustez, aukera ona da programa desberdinak ikus daitezkeelako.

2.- Zenbat eta kanal gehiago orduan eta maila altuagoa izango da. Horrela izan behar luke behintzat.

txapelketa

ARABA gure lurra

1. ZER DAGO GAIZKI ALBOAN DUZUEN UDALETXEKO IKUR HONETAN?

2. ZENBAT NEURTZEN DU OLARIZU MENDIAK?

3. ZEIN ESKOLAKO TALDEAN HASI ZEN BARTZELONAKO URDANGARIN ESKUBALOI JOKALARI GASTEIZTARRAK?

UNES MIKELDIZINELAK



Mikeldi Zinemak eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke



Maiatzeko erantzunak

- 1. San Andres ● 2. Aretxabaletan ● 3. Fontetxakoa
- IRABAZLEAK
Oskar Santos



eguneko

EZ GALDU TRENA !

matrikula zaitez !



Jose
Peru 8 Mardones 8 Arana 30
22 60 50 26 35 40 25 24 00



Euskal Herriko Unibertsitatea eta Araba

Beridanik hezkuntza tresna garrantzitsua izan da pertsonen eta herrien bizian, bereziki unibertsitate mailako irakaskuntza.

Hego Euskal Herrian, denetara lau unibertsitate ditugu: bi publikoak eta beste bi pribatuak; Nafarroa alde batera utzirik Euskal Komunitate Autonomoan, UPV/EHU eta Deusto dauzkagu.

Lerro hauetan ez noa, unibertsitateari dagozkion gai guztiak eztabaidatzera, ez eta UPV/EHU eta Deustoko arazoak jorratzera ere. Soil-soilik unibertsitate hauek dituzten ikastetxe edo/eta tituloei buruz hitz batzuk esatera natorkizue eta, batez ere, gure hiru herrialdeetan nola kokatuta dauden azaltzera.

Deustoko Unibertsitateak ez du Araban ikastetxe bat bera ere eta ez du herrialde honetan titulurik banatzen. Gipuzkoan baditu zenbait ikastetxe eta titulo: ekonomilariak, filologoak eta abar. Esango nuke Donostiarekiko kemena beti izan duela. Eta, bestalde, Bizkaian (Bilbon) du bere bihotza, eta normala denez titulu mardulenak ere bai. Orain ingenieritza ere bai eta, gainera, sail edo arlo modernoetan, informatikan eta elektronikan, alegia.

Bestalde UPV/EHUK hiru herrialdeetan ditu ikastetxeak eta tituloak, noski. Baina edozeinek ikus dezake, Arabako kanpua bene-benetan herren dagoela.

Nire iritzian unibertsitate mailako irakaskuntza hiru esparrutan bil daiteke: zientziak, teknikak eta giza-zientziak. Arabako kanpusak hutsuneak, batez ere, lehen-dabiziko bi esparruetan ditu. Behar-beharrezko deritzot, lehenbailehen, gure erakundeek unibertsitateko agintariek bat eginez, Arabako kanpuserako neurriak hartzea. Zerbaitetarako balioko badu hemen doa nire ideia: gaur egungo ingenieritza eskola goi-mailako politekniko bihurtu eta gaurko irakaskuntzei beste bat gehitu: aeronautiko-ingenieritza (gorengo mailarako); gaur egungo farmazia fakultatean beste titulo berri bat sortu, biokimika adibidez.

Neurri hauek Arabako kanpua indartuko lukete, gastu gehiegirik ez lukete sortuko eta gure gazteentzat etorkizunerako aukera berriak sortuko lirateke. Horrez gain, Arabako industria laguntzeko eta bultzatzeko baliagarria litzateke, batez ere hegazkingintzan eta kimika industria gaurkoenetan.

Alberto Ansola

BAZEN GARAIA !

BAI, bazen garaia! Mintz-lagunaren egitasmoan parte hartzeko izen eman zuten 40 lagun bildu zituen azkenean maiatzaren 13an Raúl Martínez proiektuaren arduradunak. Argazkian ikusten diren horiek Iparralde gizarte-etxean bildu ziren eta hasiera-hasieratik lagun berriak egin

eta euskarari gogoz ekiteko asmoa azaldu zuten.

Hasierako bilera honetan mintzalagun bakoitzak bere taldea ezagutzen hasteko parada izan zuen. Guztira 4-7 lagunek osatutako bederatzi talde eratu dira. Taldeak partaideen adinaren eta zaletasu-



EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

*Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak*

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeak **taberna**
Kutxileria 23

nen arabera egin dira eta talde-kideak biltzeko eguna eta ordutegia beren esku geratu da. Antza denez, talde gehienak kafetxoa hartzeko edota poteoan ibiltzeko asmoa agertu dute. Talde batek, hala ere, mendi-irteerak egitea erabaki du eta beste talde bat kirola egiteko elkartuko da.

Gasteizko ikastola eta beste

ikastetxeetako 60 bat gazte oraingoz egitasmo berri honetan parte hartzeko aukerarik gabe geratu dira. Izan ere, euskaltegietan jende adintsuagoak eman baitzuen izena. Hala ere, kanpoan geratu diren guztientzat GEU elkarteak ekitaldi txiki bat antolatzeke asmoa du erakutsitako interesa eskertzeko. Beraz, eskerrik asko eta erne egon!



Alkate jauna ENTZUN!

EUSKALTZALEON

Elkargunea behin eta berri, eten gabe ari da Gasteizko Udalean Euskal ordenantza duin batzuek aldarrikatzen. Hiriburuko euskal talde eta elkarteekin batera Udaleko alderdi politikoetako ordezkariak adostutako Euskal Ordenantzak indarrean jartzea exijituz, baina Alkate jaunak ez du hitza betetzeko asmo eta borondaterik erakutsi nahi. Muzin egiten die eskakizun guztiei. Nahiz eta hainbat bilera burutu, idatziak aurkeztu, kaleko mobilizazioak antolatu, beharrezkoak ditugun Ordenantza zuzenik gabe jarraitzen dugu.

Alkate jaunak, Cuerda jaunak, jakin behar luke azken hamarkada honetan, Gasteizko euskaldunen, euskara darabiltenen kopurua bikoiztu egin dela eta horrek Udalen aldetik zentzuzko erantzuna ezinbestekoa duela.

Cuerda jaunak jakin behar luke, badaki, hiriburuko Euskaltzaleon Elkargunea osatzen dugun talde eta pertsona guztiok gure laguntza eta aportazio zintzoa emateko prestu gaudela.

Alkate jaunak jakin behar luke, badaki, euskara maite eta bizi dugunok, legez tokatzen zaizkion eta zuzenak diren eskubideak bideratu bitartean, Ordenantza duinak lortu bitartean, ez dugula etsiko. Burugorrrak garena eta mobilizazio iraunkorrean jarraituko dugula.

Eta Cuerdak jakin behar luke, arrazoizko eta hitzartutako eskakizunak entzuteko belarriak garbitzea bezalakorik ez dagoela eta ondoren borondate eta duintasun piska bat izanez gero...

Alkate jauna...! Entzun arren...! Amen!

Abel Enbeita



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK



OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak
ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier
Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

«OSO LAN POLITAK
IDAZTEN DIRA BAINA
PANORAMA BELTZA
DAGO IPUINARENTZAT»

Javi Cillero:

Nor da?

❑ Ignacio Aldecoa Ipuin sariaren 25. edizioa irabazi du. Javi Cillerok itzulpen hautatuak zituen kaleratuak orain arte: Mark Twainen "Hardleyburg usteldu zuen gizona", Charles Dickensen "Garai latzak", Roald Dahlen "Atzekoz aurrera hitz egiten zuen apaiza" eta Raymond Chandlerren "Hiltzailea euripean". Bestetik, sortzen ere jarduna zegoen: "Eddy Merckxen gorpila" -1.993an Haur eta Gazte literaturako Lizardi saria-, eta "Norena da Virginia City?". "Baiona Blues" ipuin saritua erantsi dio zerrendari.



Zertan da "Baiona Blues" ipuinaren mamia?

Izenburuak berak ageri duenez, ipuina Baionari loturik dator. Pertsonaia batzuen elkargunea da Baiona eta istorioa bertan erabakitzen da. "Blues" horrek, berriz, giro malenkoniatsua, tristea eranstean dio. Ipuina grabazio batekin hasten da: emakume batek bere buruari hitzegiten dio. Grabazio horretan, berriz, beste istorio bat dago. Istorioa bi emakumeren gaineko harremanetan oinarriturik dago. Bi

emakumek aspaldian izan zituzten maitasun eta adiskidetasun harremanak eta berorien bilakaera lantzen ditu ipuinak. Hortik dator blues tonua; Billie Hollidayren kanta bat balitz bezala. Emakume horietarik bat pertsonaia nagusia da eta zenbait istorio korapilatzen da beraren inguruan: bai oroiztapenak, bai garaiko gertakariak.

Zergatik aukeratu duzu Baiona?

Mugaz beste aldeko hiria delako. Border kutsua eman nahi izan diot ipuinari, mugaz gaindiko kutsua. Mugarekin jokatzeko kokagune berezia iruditzen zitzaidan Baiona, izan muga fisikoa -sasimuga, besterik ez bada ere-, zein psikikoa.

Ipuinean, mugak pertsonaia nagusiari nola eragiten dion ere landu dut. Emakume hori atzerrian ibilia da eta beste mugak ezagutu eta gainditu ditu; itzultzean, berriz, aspaldiko mugekin eta berriekin egiten du topo. Joko sinboliko bat egin dut muga kontzeptuarekin. Pertsonaiei eta mugari sinboloari, eman nahi izan diet garrantzia. Ipuina ez da izan artifizio literarioa, besterik gabe; pertsonaien mina, poza, maitasuna... euren sentimenak azaldu nahi izan ditut.

Zure ipuinaren "egitura ausarta" azpimarratu zuen epaimahaiak.

Ipuina ez da lineala, plano desberdinak ageri dira bertan. Horixe da ausarkeriarik nabarmentzen. Pertsonaia biren aho-

tsak tartekatzen dira, oroiztapenak eta bakar hizketak... Irakurlea prestatzeko sarrera bat ere badago. Ipuinean ez da garbi ageri nork zer kontatzen duen. Ez dago garbi kontatzen dena ere errealtatea ala fikzioa den. Aspaldi idatzi nuen ipuina. Gero, behin eta berriro berriro idatzi dut. Azkenean, zenbait elementu ezarri nion, kontrastea emateko. Nik uste horrek tira egiten diola ipuinari. Egitura ere korapilatzen du baina egitura konplikatu horrexek pizten ditu pertsonaiak, ze berriro idatzek baino lehen, lauso xamar agertzen ziren.

Itzulpen lanak kaleratu dituzu, batetik, gazte literatura sortu duzu, bestetik. Oстера, ipuin saria irabazi duzu

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

berrikoia

idazle eta itzultzailea

ipuin saria irabazi duzu orain...

Itzulpenak errazagoak zaizkit: zirt-zart, hasi eta segi buka arte; itzuli besterik ez duzu egin behar. Ipuinarekin, aldiz, hartu, moldatu, landu eta landu. Ez dakizu inoiz noiz amaituko duzun. Alde horretatik, itzulpenak bidea egina dauka; sormen lanak, berriz, ez. Argitaratzeari dagokionez ere, oso ipuin gutxi argitaratzen dira; antologia osatu ezik, bederen. Ipuin bat argitaratzeko bilduma osatu edo lehiaketetan aurkeztu behar duzu; kaleratuko da, saria irabaziz gero. Bestela, panorama beltza dago ipuinarentzat, zoritxarrez, ze oso lan politik idazten dira. Horri dagokionean, ipuinari autonomia handiago eman

beharko liokete argitalpenetan, sail bereziak sortuz eta euskal literaturako zein unibertsaleko ipuinak argitaratzeko. Orri gutxiko argitalpen apalak izanda ere, mereziko luke. Ez dakit merkatal ikuspuntutik errentagarri izango litzatekeen baina. "Baiona Blues"-i dagokionez ere, nik uste dut ipuina bakar-bakarrik argitaratu beharko luketela, ze oso ipuin berezia da. Ia-ia nobela laburra da. Gainera, oraingoz ez daukat beste ipuinik.

Zer dator "Baiona Blues" sarituaren ondotik? Zer asmo duzu hemendik atzerako?

Itzulpen lanak amaitu berri ditut eta argitaratu zain nago: Scott Fitzgerald-en "Babiloniara itzultzea", Robert Bloch-

en "Psikosia" -Alfred Hitchcock-en pelikularen oinarria-, eta gazte literaturako "Ibai-arratoia". Bestalde, artikulu bat ere prestatu dut Jon Mirandek eta Robert Laxalt idazle euskal amerikarrak elkarri zuzendu zizkieten eskutitzen gainean. Maiatzaren amaieran, berriz, erakusketa bat egingo dugu Bilbon hogeita bederatzik euskal artista eta idazlek. Batera joango dira artisten lanak eta idazleenak: hauek haienaren gainean landuko dituzte beren testuak. Eva Artazkoz eta Pernan Goñirekin egokitu zait. Oso asmo polita da. Eta horren ondoren, atzerira, EEBBe-tara, ikastera -doktorego tesia egin nahi dut-, eta irakurtzera. Nire asmoa da asko irakurtzea, ingurura begiratzea eta lagun hurkoaren taupadak

aditzea.

Zer irakurri asmo duzu?

Ez daukat aurriritzirik. Ahalik eta gehien irakurri nahi dut: hasteko, literatura unibertsaletik. Autoreen eta obren panorama zabala eduki nahi dut; prestakuntza lan handia egin behar dut besteek egin dutena ezagutzeko: idazleak bere burua jantzi beharra dauka idazten segitu nahi izanez gero. Intuizioa ondo dago, baina arkitektura lana ere egin behar da: teknika eta mamia. Bietatik ikasten da literatura unibertsala irakurriz, bai euskaraz, bai ingelesez. Idazten ere segituko dut, baina tartekamarteka.

Miel Anjel Elustondo

Floridako altxorra !

35



adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



PARKE NATURALA

VALDEREJO

naturaren babesleku



d

uela 4 urtetik, 1992ko urtarrilaren 14az geroztik, Valderejo 3.496 hektareako parke naturala dugu. Arabako Gaubea udalerrian kokaturik, Valderejo mundu mediterraneo eta eurosiberiarraren arteko mugan dago; bere kokaguneari esker, hango flora eta fauna aberatsa baino aberatsagoa da. Horrela ikusi ahal izan da burutu berri den animalien erroldan: 196 ornodun espezie zenbatu dira. Valderejoko 'erregea', aldi berean parke naturaleko sinbolotzat hartutakoa, sai arrea da. Aurten, 80 bat bikote dira parke inguruko amildegetian ugaltzen ari direnak, iaz baino gehiago. Printzeren bat egotekotan orkatza litzateke, nola egunsentian hala ilunabarrean bideetan gora eta behera ikus daitekeena.

GAUZATU BERRI den animalien erroldak ustekabe atseginenik eman die Valderejoko arduradunei. Baliabide Naturalen Kontsultorak erroldatutako 196 espezie ornodunen artean 122 hegazti, 46

MIKO

izozkiak


Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

JATETXEA

Kutxilleria, 26 tfoa: 28 81 47
•GASTEIZ

ugaztun, 14 narrasti, 12 anfibio eta bi arrain mota daude. "Bertan aurki daitezkeen arrain espezieak amuarraina eta Barbo Culirrullo dira. Azken hau parke natural honetan besterik ez da agertzen, Valderejoko endemismo bat da", azaltzen digu parkeko informazio lanetan aritzen den Iñaki Navarro biologoak. Datu harri-garri eta pozgarri gehiago ere eman du azterketa horrek. Besteak beste, babestutako eremu natural honetan hamalau saguzahar espezie ezberdin daude, "penintsula osoko espezie guztien %60 inguru bertan ditugu".

Sai edo putre arrea, orkatza eta aipatutako berezitasunetaz gain, Valderejon badi-ra beste biztanle ugari: arrano sugezalea, sai zuria, aztorea, gabiraia, mendi txirrikila, mokokerra, azeria, basurdea, urtxintxa, azkonarra, e.a. Fauna hau oso inguru erakargarri batez inguraturik dago: pinudiak, artadiak, pagadiak, ameztiak, Puron ibaia, karezko haitzak, zingirak,... Basoak landareria hedadura osoaren %58 baino gehiago dira.

Aipagarria da parke honetan eredu naturala eta nekazaritzaren arteko harmoniari eusten zaiola, garia ereintza nagusia izanik. Abeltzantzak ere badu bere tokia Valderejon, non artaldeek bazka ugari daukaten.

Lalastra herriko bizirau-pena

Parke naturalaren barruan lau herrigune daude: Ribera, Villamardones, Lahoz eta Lalastra. Mende honen hasieran ia 400 biztanle izatera heldu baziren ere, urteak joan ahala jendea alde egiten hasi zen. 60ko hamarkadan jasandako jaitziera demografiko handiaren ondorioz oso biztanle gutxi gelditu arte. Egun, Ribera eta Villamardones herriak erabat abandonaturik daude eta Lahozen agure bat besterik ez da bizi baserri batean. Lalastran, bestalde, hiru familia bizi dira, parke naturalari esker beren bizimodu hobetu dutenak. "Lalastrako biztanleentzat oso garrantzitsua da Valderejoko Parkea. Familia batek taberna eta nekazal-turismorako baserri baten ardura du eta beste bi familiako kideek parkean bertan egiten dute lan basozain eta garbiketa lanetan".

Valderejoko Parke Naturalak bisitari kopuru handia jasotzen du urterik urte. Iaz 70.000 lagun baino gehiago hurbildu ziren bertara; hauetatik gehiengoa Bizkaikoak dira eta askoz gutxiago dira Gasteiztik datozenak. Burgosetik ere badatoz hainbat bisitari.



Lalastran kokaturiko harrerategian parkeari buruzko diaporama eta erakusketa ikusgai dago, eta denbora gutxi barru ibilbide hezigarriak ere antolatuko dira, haxe da behintzat Arabako Foru Aldundiaaren asmoa, bai astean zehar joaten diren O.H.O.ko ikasleentzat, baita beren kabuz Valderejora dihoazenentzat ere.

Edu Lopez de Luzuriaga

Zenbait
zehetasunek
biziki
jazten
dute



Ducci

D96 Eredua- 7.550 Pta.

Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari doazkion moduak. punta puntako modaren xarma.

Multiopicasen Ducci 96ko, bilduma eksklusiboa da.

Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera.

Hurbil zaitez eta ezagutu ezazu.



Gure mailegu txartelarekin ordain ezazu

3 bilabetez kargurik gabe.

MENDIAOPTICA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Ama Zuriaren Plaza / Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Amurrio bigarren aldiz anfitrioi

hilaren 16an, Amurriok harrera emango dio aurtengo Araba Euskarazi orain hamar urte egin zuen bezala. 1986ko esperientzia izugarri ona izan zen herriko euskalduntze prozesuari bultzada sendo bat emateko. Aurtun, Amurrion ospatuko den ekitaldi berri honekin, antolatzaile lanetan dabilen Aresketa Ikastolak beste urrats bat eman nahi du. Zentzu honetan, bi dira betebeharreko helburuak: haur Hezkuntzarako azpiegitura duin eta egoki bat lortu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza abian jartzeko beharrezkoak diren azpiegitura-egokitzapenak gauzatu ahal izatea.



EUSKARA GUZTI2ONA

EUSKARAZ 96

ZAVAR SERRIDO ZINDO

GASTEIZKO BATZOKIAK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

"EUSKARA GUZTIZ ONA"

lelopean Amurriok bigarren aldiz ekingo dio Araba Euskaraz jaia antolatzeari orain hamar urte lortutako arrakasta errepikatzeko asmoarekin. Datorren ekainaren 16an, euskarazko Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza izango dira euskal elkartasunaren hartzaileak.

Aurtengo ekitaldi honen beste helburu bat euskarak Amurriion nahiz Aiara 70eko hamarkadan euskararen garapenean eragileak izandako amurriotarrei omenaldia eskaintzea da; garai hartan, herriko euskalduntzearen haziak erein zituztenak omendu nahi dira. Bereziki, 1975ean Amurrioko lehendabiziko gau eskola sortu eta 1977an oraingo Aresketa Ikastolaren lehen urratsak eman zituztenak gogoratu nahi dira.

Pertsona hauen ahaleginei esker Amurriok joera ona agertzen du bere euskalduntze prozesuan 1981 eta 1991 bitartean, euskaldunen kopurua %2,53tik %11,97ra izatera pasa da. Are gehiago, gaur egun bi euskaltegi ari dira helduak euskalduntzen eta ikastetxe guztiek "B" edota "D" ereduetan dihardute lanean.

'Euskara guztiz ona'

Hitz joku honen bitartez, Araba Euskaraz'96ko antolatzaileek mezu bikoitza igorri nahi izan dute: "Batetik, -Euskara guztiona-, gure hizkuntza

guztiona delako eta euskara inoren monopolioa ez delako. Euskara herriarena da eta, beraz, herritar guztiona. Bestalde, -Euskara guztiz ona-, herri guztiek beren hizkuntzan daukatelako ondare kultural garrantzitsuena eta ondare kulturalak, bere funtsean, onak direlako".

Antolatzaileek diotenez, beraz, "euskara guztiona izate honek faktore integratzailea behar du izan eta inolaz ere ez banatzailea". Aldi berean, euskara euskaldunon altxorra dela adierazten da, gure kulturaren gainontzeko arlo guztiak hizkuntzan oinarritzen direlako, eta "nork esan dezake herri batek dituen ondare kultural guztiez jabetzea txarra denik?"

Lelo bikoitzaren eskutik hainbat

pertsonaiak osaturiko logotipoa osatu da aurtengo ekitaldirako. Jarrera ezberdinetan aurkitzen diren hamar pertsonen marrazkiekin euskara guztion topagunea izan daitekeela adierazten da. "Gazte eta heldu, ume eta zaharren arteko adiskidetasunak, bizipenak eta etorkizunean jarritako itxaropenak, eguzkiaren berotasuna lekuko".

Araba Euskaraz'96 honekin, hamar mila biztanle inguruko herri honek orain hamar urte euskalduntze prozesuan lortutako gorakada errepikatu nahi du, hemendik lasterrera Amurrio Euskal Herriko mapa soziolinguistikoa euskaldunen tipologia sarturik egon dadin, guztion esku dagoen xede egingarria.



zure egoitza berria Lejarreta kalean

HEGOALDE

euskaltegia

Jose Lejarreta, 9 behea
tfnoa 28 41 96 01003 GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



arazo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

Hormetako artistak

**GRAFITTIK:
SPRAY-AREKIN
EGINDAKO
ARTEA**



a

rteak kalean bizirik irauten du eta bere adierazpenak era askotakoak dira. Horien artean grafitiari aipatu behar ditugu. Grafitiari buruz gehiago jakin nahian GEU Gasteizkoek Arana aldera jo dugu, bertan aurkitzen baitira arte honetako adibide aipagarriak. Auzo honetan "Dudax"ekin egin dugu topo. Bere ustez, grafitiari artetzat hartzea gehiegi litzateke, baina ezin da ukatu, bestalde, aerosola erabiltzen duten asko benetako artistak direla.

GRAFITTIK Gasteizera 80ko hamarkadan iritsi ziren eta bere lehenengo adierazpenak sinaduren bidez egiten ziren. "Toro eta Sub 67 izan ziren lehenak Gasteizen, baina egun jende horrekin ez dugu harremanik" dio Dudaxek, Gasteizen aurkitu dugun grafitizale amorratu batek. "Geroxeago hasi nintzen ni. Arte Ederreko fakultatean nengoela, grafitiari buruzko liburu bat irakurri nuen eta harrigarria iruditu zitzaidan mundu hau. Horrela, bada, nire sinadura pareta guztietan margotzen hasi nintzen, aha-

TXAPELARRI
taberna



KUTXI kalean



kafetegia
taberna

ALDAPA

SAN VICENTE
aldapa

GASTEIZ

lik eta leku gehienetan nire izenpea jar-
tzen aritu izan naiz gaurdaino. Batzuek
astuna naizela diote baina hori esatean,
nik egindako lanaren berri ematen didate
eta hori pozgarria da. Horrek adierazten
du nire lana ikusi dutela eta, beraz, ez
dela alferrikakoa izan".

Graffitiak Estatu Batuetan jaio ziren,
70eko hamarkadan "break dance" errit-
moekin lotuta sortu ziren. Graffiti-
historia bitxia da Dudaxen ustez. "Errotu-
ladore bat hartu eta New York guztian
zehar Toky 67 goitizena ahal zuen leku
guztietan idazten hasi zen mutil gazte
bat. Eta modu horretan piskanaka-piaska-
naka ezaguna egin zen. Egunkari bat bit-
xikeria horretaz jabetu eta elkarrizketa
bat egin zioten. Errotuladore batez baliatuz
arrakasta lortu zuen gazte baten histo-
ria kontatzen zen bertan. Elkarrizketa
argitaratu eta denbora gutxiren buruan
ehundaka neska-mutiko hasi ziren gauza
bera egiten. Horrela jaio ziren graffitiak.
Ondoren, zenbait pelikula eta libururi
esker graffiti-ermoda Europa osora
zabaltzen.

Graffiti-erazaleek ezarrita dauden arau ba-
tzuk jarraitzen dituzte. Esaterako, sinadu-
rak egiteko goitizena bat aukeratu behar
da; materialari dagokionez, errotuladore-
ak eta sprayak erabili behar dira. "Grafi-
ttizaleen artean lehia berezia antolatzen
da. Bakoitzak bere sinadura ezagunena
izatea nahi du eta hiriko lekuri biskoe-
nak aprobetxatzen dituzte beren izena
margotzeko. Gainera, kolore bizidunak
eta neurri handiak erabiltzen saiatuko
dira".

Dudax-ek azaldu digunez azken urtee-
tan gauzak aldatzen ari dira graffiti-er
alorrean: "Graffiti-er orain beste bide bat
hartu dute. Sinadurak egiteaz gain, mura-
lak ere lantzen ditugu. Nik dudak adina-
gatik egun muralak bakarrik egiten ditut,
Judimendin eta Aranan ikus daitezkeen-
ak". Gasteizko ekialdean, batez ere,



Judimendi eta Arana auzoetan ikusiko
dituzu horrelako mural gehienak. Arra-
zoia sinplea da: "Aranan lonja bat dugu
eta bertan biltzen gara Gasteizko zenbait
graffitizale. Nire adinekoa den Spear eta
16-17 urteko gazte batzuk hor elkartzen
gara. Graffiti-aren inguruko ihardunaldi
batzuk ere antolatu genituen duela zen-
bait aste Aranan, eta horren lekuko auzo-
ko kaleak ditugu. Topaketak arrakasta
handia izan zuen, batez ere praktika ikas-
taroak, eta berehala bukatu zitzaigun
material guztia. Aranako kaleak graffiti-
beteta egotea, beraz, gure errua da".

Graffiti hitza zehatz-mehatz inork ez
daki nondik datorren. Batzuek esaten
dute grekeratik datorrela, beste batzuek,
ordea, italieratik datorrela diote. Baina
neska-mutiko hauek ondoko ezagutzen
dituztenak Gasteizko udaltzainak dira:
"Ni askotan harrapatu naute margotzen
eta ia-ia ezaguna naiz beraientzat. Egiten
ari garen pintadak politikarekin zerikusir-
ik ez duela ikusten badute, gehienetan
lanean jarraitzen uzten digute. Hori harri-
garria da zeren azken batean guztiak dira
pintadak".

Karlos Fdz de Betoño

KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardiobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista
arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko
aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-
bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-
gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta
amerikarrean iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

**ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-
girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...**

mostrongotxoak

*Nire familiako
arraroena naiz...
eta zek...?*



herritar jakinduriak aspalditik esaten duen bezala, familia ezin duzu aukeratu; lagunak, ordea, zuk hautatzen dituzu. Beraz, familia ez da borondatez alda daiteken zer edo zer. Pertsonalitatea eratzeko momentuan ingurua oso garrantzitsua da eta senitartekoen izaera eta jokabideek moldatzen gaituzte. Hala ere, era guztietako familiakoak ditugu eta, familia hoberenetan ere, bada norbait bitxi samarra izaten dena beti: aitonak txikitik zorriak besteen

buruetan lasterka ikusten zituela kontatzen du; ahizpak arropa beltzak bakarrik jantzen dituela, lehengusu batek arkoen geziak egiten ematen duela denbora guztia, ... mota guztietako bitxikeriak aurki ditzakegu.

Gai serio honetan sakontzeko Olabide ikastolara joan gara, hango mostrongoen familietako pertsonaia arraroena ezagutzeko desiotan. Eta ondoko galderarekin esnatu ditugu Arrate andereñoaren neska-mutilak euren matematikako ariketatik.

*Zein da zure
familiako pertsonaia
arraroena?*

NIRE FAMILIAKO

arraroena nire amonaren txakurra da zarata arraroak ateratzen dituelako. Eta nire loritoa ere oso bitxia da, asko hitzegiten baitu.

Maite, 11 urte

NIRE IZEBA, oso pinpirina delako. Bere umeak onenak direla eta horrelako gauzak etengabe esaten dituelako.

Pator, 10 urte

NIRE LAU urteko arreba, egun osoa puzkerrak botatzen ematen du eta.

Aitor A., 10 urte

BITXIENA, dudarik gabe, izeba da, ilea gorri, berde, more, eta laranja koloreekin tindatuta eramaten duelako.

Ibon, 10 urte

NIRE ANAIA da familiako pertsonaiarik arraroena. Batzuetan nirekin oso gaizki eta oso era arraroan portatzen da. Halere, tarteka, bere alde onak ere baditu. Adibidez,

Parisera joan zenean opari batzuk ekarri zizkidan. Benetan arraroa inondik ere!

Haritz A., 10 urte

NIRE TXAKURRA

arraroa da belarra jaten duelako eta nire anaia bilbotarra delako; nire lehengusua oso txikia delako; nire gurasoak arraroak dira ama oso baxua eta aita oso altua delako. Eta azkenik,

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

etxeko perikitoa ere berezia da asko abesten duelako .

Urtzi, 10 urte

NIRE AMA da familiako arraroena. Izan ere, inoiz galtzen naizenean Ertzaintza, polizia, bonberoak, e.a. nire bila jartzen dituelako.

Leire, 10 urte

ANAIA DA arraroena: lotan hitz egiten du eta gela beti hankaz gora uzten du.

Sorgintxo, 11 urte

DITUDAN BI katuak benetan bitxiak dira. Asko maite nituen, hala eta guztiz ere, baserritik aldegin zuten. Hurrengo egunean bata ondoko etxe batetan aurkitu nuen eta bestea dut gogoratzen non harrapatu nuen.

Xabier, 10 urte

FAMILIAKO arraroenak alde batetik gure aitita burugogorra eta bestetik, aita eta biok gara, txoriak gehiegi maite baititugu. Osaba ere arraroa da; nire aitatxia baldin bada ere, bera Athletik-ekoa da eta ni, berriz, Alavesekoa.

Karlos, 11 urte

ETXEKO DORDOKA

benetan bitxia da. Lepo orlegia edukitzeaz gain, erdi ustelduta dauden ganbak jaten ditu.

Elixabete, 11 urte

NOR? GURE AMA.

Zergatik? Pixka bat plasta delako eta beti nire atzetik dabilelako. Eta hori ezin dut jasan! Aitarekin ere gauza bera gertatzen zait.

Mikel, 11 urte

RUFO, etxeko txakurra, benetan xelebrea da. Beti lotan dago. Pasiatzera ateratzen dudanean ere loak hartzen du.

Egoitz, 11 urte

BITXIENA nire osaba da, Athletikekoa delako. Pasiatzen ari garenean, beti gogorazten digu Athletikekoa dela. Ikusi duzue zer egin duen Athletikek? Eta Erreala, zuek bai kaxkarrak zaretela!. Beti horrelakoak esaten aritzen da. Nik, ordea, Erreala onena dela azaltzen diot.

Haritz, 10 urte

Lorea Zurimendi



Umeak
zaintzen ditugu

GAUEZ

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Maider 24 90 62
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Maider 24 90 62
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35

ARRA TSALDEZ

Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23
Maider 24 90 62

kan roak
geu

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA

ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

Kanturako zaletasunaren aldeko apustua

EUSKAL HERRIKO KANTU TXAPELKETA GASTEIZEN

e

kainaren hirugarren asteburua euskaltzaleen derrigorrezko topagune izango da Araba, 15ean, larunbatean, Euskal Kantu Txapelketaren finala jokatu da Gasteizen eta biharamunean Araba Euskaraz ospatuko da Amurrión. Hogeitabat kante- herrialde bakoitzeko hiruk- parte hartuko dute Txapelketan; horretaz gain Maixa eta Itziarrek Principaleko giroa berotuko dute bere azken abestiek eta Euskal Herritik at bizi diren euskaldunek ezustekoren bat emango dutela iragarri dute.



GARIKOITZ, Izaskun eta Kirrixki taldea izango dira Euskal Herriko Kantu Txapelketaren finalean Arabako ordezkariak, Amurrión burututako herrialdeko finalean onenak izan baitziren. Beste herrialdeetako finalak ere egin dira jadanik Oiartzun, Durango, Doneztebe, Larraina, Urruña eta Aiherran eta Principalean entzungo diren 21 kantari edo taldeak prest daude dagoneko.

Euskal Herriko Kantu Txapelketan parte hartzeko baldintzak hamabost urtetik gorakoak izatea, euskaraz kantatzea, euskarazko diska edo kasetarik argitaratu ez izana eta lehiaketa honetan bi aldiz saritua ez izatea dira. Parte hartzaileek nahi bezalako musika laguntza eramán ahalko dute, beste ezeren gaineratik kantua bera baloratuko bada ere. Hainbat kantari horrenbeste estilo. Horixe da lehiaketa honi bizitasuna eta ikusgarritasuna ematen diona. Bibolinaren

soinu klasikoa, bateriak ematen duen itxura modernoa eta albokaren kutsu tradizionala entzungo dira hurrenez hurren Principalean. Kantu herritarrari lehentasuna emango zaio goi mailako polifonia aparte utziz, horrelako abesbatzek beste lehiaketa mota dutela uste baitute antolatzaileek.

Lehia baino zaletasuna

Onenek jasoko dituzten sariak sinboliko-

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

IZTABERNA RA JATETXEA

FINALERAKO SAILKATU DIRENAK

abeslaria

abestia

Garikoitz

Jaun Barua

Izaskun

Gau Ilun

Kirrixki

Jose Mondragonek

SAILKAPENA

Taldea

- 1.- Kirrixki: Jose Mondragonek
- 2.- Euskaraz Bizi: Greziako Itsasuntzia

Bikotea

- 1.- Leire eta Ainhoa: Maria Solt eta Kastero

Banaka

- 1.- Garikoitz: Jaun Barua
- 2.- Izaskun: Gau Ilun

Ikuslegoaren saria

Josu Gil Albrisketa: Zu gabe

Epaileak

Itziar Ruiz de Oña
Karlos Subijana
Estibaliz Arrizabalaga

tzat jo daitezke, euskararen inguruko hainbat ekitaldiren antzera diruarekin baino borondatearekin antolatzen den horietakoa da-eta Kantu Txapelketa. Dena den, egia da orobat, antolatzaileek ez dutela dirua parte hartzeko arrazoia izaterik nahi. Sarien apaltasunak ez du, hala ere, seriotasunik kentzen eta irabazi nahia eta lehiaren kutsua ez da guztiz galtzen.

Kantu Txapelketaren finala eta Araba Euskaraz asteburu berean izatea ez da, inolaz ere, kointzidentzia hutsa, euskararen bi jai hauek lotuta egon baitira hasiera hasieratik. Euskal Kantu Elkartek



berak euskara taldeekin harreman estua du; Araban Kantu Txapelketaren antolaketa pisu gehiena eta koordinazio lanak Bagare Euskal Tokiak egiten ditu.

Kantu Txapelketa EKEk egiten duen lanaren alde bat baino ez da, gehien ikusten den aldea da, hori bai. Haurrekin egiten du la gehien bat EKEk, elkartarekin lan egiten duten ikasletoetako irakasleei esker batez ere. Haurren zaletasuna pizteko modurik egokienaren bila zebiltzanean ere gauza bitxiak aurkitu zituzten irakasle horiek. Nonbait, haurrekin kantuan hasi eta 'Boga boga' bezelako kantak gustatu ez; Kortatu edo Bizkar Hezurra-
ren kantarik ezagunenak nahiago omen dituzte. Hori ikusita, eta umeei kontra egiteak gehiegi nekatzen duela kontuan hartuta, alderantzizko bidea egitea erabaki dute: 'Sarri Sarri'-rekin hasi 'Boga Boga'-ra iristeko asmoarekin.

Iparraldeko haizeak bultzatuta

Niko Etxart, Pantxoa eta Peio, Etxamendi, Maite Idirin eta Iparraldeko beste hainbat abeslari hartu daitezke Euskal Kantu Txapelketaren "gurasotzat". 1985ean burutu zen lehen Txapelketa eta Iparraldean egindako lehenbiziko saioek espero baino harrera hobeagoa izan zuten, bi urte beranduago Euskal Herri osora zabaltzen zuten lehiaketa herrialde guztietan kanporaketak antolatuz.

Euskal Kantuzaleen Elkartea, berriz, lau urte geroago jaio zen txapelketa antolatu eta kanturako zaletasuna berpizteko helburuarekin.

Ohiturak ere bere pisua du eta Iparraldeko abeslariak bereganatzen dituzte sari gehienak baina, bidea ibiliz egiten ohi da, eta gainontzeko herrialdeetan ere gero eta maila hobeagoa nabari da.

Leire Lopez de Aberasturi



Tu Invernadero
Zure Lore Sortak

ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Asturiar etxea: santina, fabada eta sagardoa



“Euskal Herria eta Asturiasen arteko loturak ugari dira”

LOKALA ez da oso haundia eta “ez dago guk nahi genukeen lekuan kokatua” dio Victor presidentek. “Nahiago genuke Dato kalean egotea, baina hori ezinezkoa zaigu eta horrexegaitik konformatzen gara daukagunarekin”. Etxe guztietan bezala, taberna eta barrualdean asturiar egoitza aurkitu ditugu. Azkenaldian, zentroa tarteka jabetxe bihurtzen da. Etxe

honek badauzka ikusteko gauza interesgarriak, Covadongako Amabirjinaren irudia, Santina, edota Asturiasen dauden herrialde guztietako hamarriak, esaterako.

Berrogeiko hamarkadaren hasieran sortu zen Gasteizen asturiarrek osatutako lehenengo zentroa. Peña Astur izena jarri zioten. Garai hartan lagun talde bat alde

a

zken hilabetetan hainbat lurraldetako

berezitasunak ezagutu ditugu “zenbat kultura hainbat ohitura” izeneko atal honetan. Oraingoan Euskal Herriarekin parekotasun asko dituen Asturiasera jo dugu, El Pilar auzoan dagoen zentrora, hain zuzen ere.

Hantxe, sagardo eta Cabraleseko gaztaren artean solasean egon gara Asturiarren etxeko hiru partaiderekin: Victor Garcia (presidentea), Celestino Garcia (presidenteordea), eta Manuel Jimenezekin (idazkaria). Denbora dexente eman dugu hizketan eta gauza asko ikasi dugu bai Asturias buruz, bai hemen duten zentroaz ere.

zaharreko taberna batean biltzen zen beren sorlekuko ohiturak gogoratu eta asturiar jatorrizko jendearen arteko harremanak bultzatzeko. Geroago Jabugo izeneko tabernara abiatu ziren eta gela txiki batean biltzen hasi ziren. Lehenengo egoitza Zapateria kalean izan zuten eta bertan egon ziren 70eko hamarkadara arte. Handik oraingo El Pilar auzoko egoitzara aldatu ziren.



Maroko 10 egun • 42.900
Maroko Hego Haundia
13 egun • 64.600
Bella Italia 10 egun • 73.800 *
Paris 6 egun • 31.200
Paris-Herri Beheak-Copenhague *
8 egun • 53.800

Kanalak eta Errotak 11 egun • 60.800
Alpeak-Tirol 10 egun • 66.800
Praga 8 egun • 59.500 **
Praga-Viena-Budapest 8 egun • 77.800 **
Ekialdeko Europa 13 egun • 89.500 *
Estanbul 8 egun • 56.900 **

* AUTOBUS ETA HEGAZKINEZ ** HEGAZKINEZ

ARABA BIDAIK

Siervas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)
Abrevadero (Frantzia kalearen ondoan) 28 21 88
GASTEIZ
Zumalakarregi hiribidea, 48 (672 28 42) LAUDIO

aterpe

GAZTA, PATEA, FONDUES,
URDAITEGIA, KEZTATUAK
Florida kalea 4
14 32 11
01005 GASTEIZ

Egun 1.500 asturiar inguru bizi da Gasteizen

Sortu ondorengo hasierako urratsak ez ziren errazak izan. "Denboraldi batzuetan nahiko geldirik izan da zentroa". Orain dela gutxi junta berria osatu dute eta oso argi dute zeintzuk diren eginbeharrak Celestino presidenteordeak azaldu digunez. "Hasierako filosofia ez dugu aldatu nahi: asturiar etxeak balio behar du hemen bizi diren asturiarrak biltzeko eta gure lurraekin dauzkagun harremanak eta loturak ez galtzeko. Horrez gain, zentroa sendotu nahi dugu. Horretarako bazkide kopurua haunditu nahi dugu, ekonomikoki hobeto egoteko, bai eta kalean dugun eragina haunditzeko ere. Gasteizen bertan dantzak, koroak, "espicha" (lehenengo sagardoa) eta horrelako ekintzak burutu ahal izan ditugu. Azken finean Gastronomía elkarte bat osatu dugu, baina, beti ere, kultur ekintzak alde batera utzi gabe".

Kultur ekintzak.

Urtean zehar kultur eta gizarte ekintza ugari antolatzen dituzte. Kultura arloan garrantzitsuenak, dudarik gabe, Enol koroa da. "Orain dela bost urte sortu zen eta harrez gero, gero eta indar gehiago du zentroan. Une honetan 30 partaide inguruk osatzen dute abesbatza" dio Manuelek. Izena Picos de Europa mendikatean dagoen laku batetik datorkio. Ezaguna egingo zaizue behar bada, lehen Espainiako itzulua handik pasatzen baitzen.

Kultur ekintzen artean ere aipatu behar dira, duela gutxi antolatzen hasi diren hitzaldiak: "Hilabetero bat egiten dugu, Asturiasekin loturik dagoen gai baten gainean. Picos de Europa mendikatea eta Baqueiros de Alzada izan dira orain artean entzundako hitzaldiak".

Kultur ekintzetan dantzak eta emanaldiak ere antolatu ohi dituzte eta Astarcon izeneko aldizkaritxo bat ere argitaratzen dute. Aldizkari horretan asturiar etxeak



antolatzen dituen ekitaldiak-eta iragartzen dira.

Gizarte ekintzei dagokionez, aipagarriena iralean ospatzen duten Santina jaia da. "Asturiar erako erromeria eta beste ekitaldi ugari izaten da Santina egunean. Azken urteetan Aramaionako Andra Mari Basilikan egiten dugu festa, baina aurreko urteetan Amurriora ere joan izan gara. Izan ere, paraje ederra da, Asturiasekoaren antzekoa. Bestalde, askotan bazkariak egiten ditugu. Zuek sagardotegietan egiten duzuen antzera, guk gure fabada jateak eta espicha sagardo dastaketak urtean hiru edo lau aldiz egiten ditugu".

Parekotasunak

Denbora luzez hizketan aritu ondoren Asturias eta Euskal Herriaren artean parekotasunik ba ote dagoen galdetu diegu. Guztiak bat etorri dira: asko omen dira bi

herrien arteko parekotasunak. "Geografia-ri dagokionez, bi lurraldeak menditsuak dira eta iparraldean Kantauri Itsasoa dute. Kokagune berezi hori dela eta, lurralde hauetako industriak eta historiak bide berdintsuak jarraitu dituzte. Hor daude, besteak beste, metalgintza eta untzigintza industriak. Erromatarrek ere, Asturiasen oztopoak izan zituzten aurrera egiteko inguruko mendiak ezin baitzituzten zeharkatu. Baina, ez dira hor bukatzen antzekotasun guztiak. Adibidez, sorginkeriarekin biek izan dituzte harremanak. Zaletasun asko ere antzekoak dira bi lekuetan. Egun, txirindularitza izan daiteke horietako bat.

Asturiarrek badute hizkuntza propioa ere, bablea. "Gure hizkuntzaren egoerak euskararekin ez du zerikusik. Bablea latinetik dator eta esan dezakegu eboluzionatu gabeko gaztelera dela. Gainera ez dago bable baturik, tokian-tokian desberdina da eta hemen baino gutxiago erabiltzen da" dio Victorrek.

Historian zehar, asturiar eta euskaldunen artean harremanak ugariak izan dira. "Jende asko joan izan da hemendik Asturiasera ikastera eta alderantzizkoa ere gertatu da. Gauza bitxiak ere badaude, adibidez, Asturiaseko herri txiki bateko telefono zerrenda hartuz gero, abizen erdiak baino gehiago euskaldunak dira" dio Celestinok.

Elkarriketa hau bukatzeko Geu Gasteizko irakurleei bablez egindako agur bat egiteko eskatu diegu. Baita eman ere: "*mandamosuos un saludu, que so atoupeis bien tos los gasteiztarras y aprestanos afrecevos el nostru centru como porton pa la conocencia d'Asturies.*" Portal del Rey kalean dago Asturiar Zentroa eta gonbidapena hortxe duzue. Gu oso ondo hartu gintuzte. Hurrena arte.

David Alvez

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

Gasteizko Paperdenda Berria



- ⇒ 500 m²-ko paperdenda
- ⇒ Ikasmateriala
- ⇒ Opariak eta ofimatika
- ⇒ Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxe: 26 22 12 / 01002 Gasteiz

Antonio Gaceo: tropeleko epailea



g

ezurra badirudi ere, hileko protagonista ez da kirolaria. Edo... behar bada, bai? Egia esan, kirola egiten du, baina modu berezi batez. Txirrindularitzan tropeleko izarrak ezagutzen ditugu, halere, Antonio Gaceo bezalako gizonik izango ez balitz, ez legoke lasterketarik. Bera epailea da; txirrindularitzan badago epailerik, ordea? Bai, egon badaude euren lana ikusgarria ez bada ere.

TXIRRINDULARITZAKO epaileen lana ezaguna ez denez, Antonio Gaceok bere zeregina zein den azaldu digu lehenik eta behin: “kirol guztietan bezalaxe arautegi bat daukagu, kotxeen joan-etorriak, helmuga korapilatsuak, sailkape-nak, denborak, eskakizunak... Hori guztia gure ardurapean dago”. Alabaina, baliabideak ez dira berdinak txapelketa guztietan. “Gazte lasterketa batean hiruzpalau epaile dauden bitartean, Tourrean hogeiren bat izaten dira. Hori gutxi balitz, Frantziako itzuliko helmugetan “photo finish”-a ere izaten da, besteetan aldiz, bideoa eta kaxetea, besterik ez”.

Antonio Gaceo tropelean ibili da mutil koskorra zenetik, gaztetan txirrindularia ere izan baitzen, “Orduan bizikletaz

ONGI
ETORRI
KUTXI 103
GASTEIZ

xurruT

J
A
T
E
T
X
E
A

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
Tel. 23 00 68 GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2- 7. pabilioia • Tfnoa: 943 -70 08 95
Faxa: 943-10 85 47 20600 EIBAR

ibiltzen nintzen eta egun kotxez, baina beti tropelelaren baitan" dio Antoniok. Epaile lanetan orain 20 urte hasi zen, hasieran Arabako lasterketetan, gero Euskal Herrikoetan, eta beranduago Espainia-koetan. Gauzak horrela, gaur lehen maila-ko epailea dela lasai asko esan dezakegu. Bartzelonako Olinpiadetan, Kataluniako itzulian eta beste lasterketa askotan epaile lanetan ibilia bada ere, berak ez dio garrantzi handirik ematen, "gustokoa dudalako egiten dut".

Txirindularitza eta futbola

Bestalde, lehen esan bezala, txirindularitzako epaileen lana ez da ikusgarria, hau da, ez da futboleko bezalaxe gertatzen..

Futboleko epailea protagonistagoa dugu zelaian. Zaletuak, telebistek, kazetariok... segunduz segundu aztertzen dugu beren lana eta, akatsik egiten badute, ondorio izugarriak izaten dituzte batzuetan eta tarteka Ertzaintzaren laguntza ere behar izaten dute onik ateratzeko. Txirindularitzan berriz, lasaia da dena, ez da gatazkari izaten, edo hobe esanda, gutxitan gertatzen dira istilu larriak: "Haizea dabilenean, abaniko deiturikoak osatzen dituzte txirindulariek, eta orduan tirabira bat edo

beste sortzen da. Halere, eztabaidak, irainak... salbuespenak ditugu txirringaren gainean. Eguneroko gertaera izaten ez den arren, bi futbolari elkar jotzen ikusteak ez gaitu gehiegi harritzen baina txirindularien kasuan harrigarriagoa izaten da. Behin bakarrik ikusi ditugu borrokan eta ez dira ez boxeo izarrak. Telebistako irudiek eskaini ziguten Sierra eta Arrietaren arteko borroka hura gogoan daukagu oraindik, eta egia esan, kolpeak tropelkideari baino gehiago haizeari eman zizkionten.

Dena den, futbola eta txirindularitza erabat desberdinak dira, ez daukate elkarren arteko antzik. Txirindularien etsaierik nagusia bidea izaten da eta ez diote inori ostikadarik eman behar. Oso bestelakoa da ere epaileen lana, "kirolariek eta taldeetako zuzendariak ezik, ez gaitu inork ezagutzen. Horren ondorioz, ez dago esaterik Antonio Gaceo epailea gaizki egon denik", gaineratu digu gasteiztarrek.

Arabako harrobia

Arabako 30 epaile inguru daude, horietarik hiruk dute Antonioren maila. Gizon horiek ederto ezagutzen dituzte kirol honen sekretuak eta epaileak izateaz gain,

zaletuak ere badira. Antoniorekin, esaterako, orduak eta orduak eman genitzake txirindularitzari buruz hitz eginez: "Gaur egun izarra izatea oso zaila da. Gauzak asko aldatu dira, eta oraingo txirindularitzak antza izugarria dauka atletismoarekin. Lehen ez zen Sabino Padilla bezalako gizonik ezagutzen. Gurean ondo gabiltza, Araban lagun asko ez bagara ere, hamaika txirindulari daukagu. Galdeano anaiak, Solaun, Otazu, Untzaga, Mauleon...Horra hor, Alvaro Gonzalez de Galdeanoren garaipena Asturiasen, edota Otazuren lan iluna ONCE taldean. Beste batzuk ere bidean geraten dira, Gereñu kasu. Urte batzuetan tropel buruan ibili ondoren, utzi egin behar izan du. Askotan kirola ez da justua".

Kirolarien prestakuntza ere aldatu egin da azken urteotan. Lehen txirindulariak kontrolrik gabe egiten zituen entrenamenduak. Bizikleta hartu eta errepedera. Hori xe zen prestakuntza guztia. Antoniok ematen digu gaurkoaren berri: "Taldea-ko zuzendariak ordenagailuen bidez kontrolatzen dituzte euren txirindulariak une oro. Ikustekoak dira kotxetan daramatzaten aparailuak. Bestalde, jatekoak ere lehen ez zeukan garrantzia du orain. Ez du zerikusirik lehengoarekin".

Elkarriketari amaiera emateko, bitxikeria bat eskatu diogu epaileari. Elkarriketatuak Araiako lasterketa bat du gogoan. "Urte asko igaro dira, baina egun hartan lana ez zen erraza izan. Bi txirindulari pare-parean heldu ziren helmugara eta ez zegoen erabakitzerik zein zen irabazlea. Gauzak horrela, biek kilometro bateko lasterketa bat egin behar izan zuten, kirol honetan ez baita berdinketarik onartzen". Egun hartan ere, arautegiak agindu zuen eta Antoniok arautegiak zioena betetzea baino ez zuen egin.

Ismael Diaz de Mendibil



*HegoAmerikako
jantziak ederrenak*

PINTORERIA
kalea • S. Franciscoren kantoia

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



REPLICANTES: rock 'n roll-aren bidean



bateria aldatzearekin batera musika-
ren erritmoa guztiz aldatu da. Ni "A
la fuga"ren zati bat nintzen, "Repli-
cantes"en gertatzen den bezalaxe.

**Pentsatu al duzue inoiz hirukotea
laukote bihurtzea?**

Bai, Javi piano joleak alde egin zue-
nean bigarren kitarrajole bat sartzen
saiaitu ginen.

Pianojole berririk ez?

Beno, Rock 'n Roll-ean oso zaila ger-
tatzen da teklista on bat topatzea.
Dena den hirukote moduan guztiz bat
eginda gaude. Gainera 2x2-ko eske-
natoki batean sartzeko gauza gara.

**Pozik zaudete orain arte zertu ditu-
zuen kontzertuekin?**

Bai, laguntzen digute taldea osatzen.

**Aitor, zerk bultzatu zintuen Repli-
cantes taldean parte hartzea?**

Sinpletasunak, freskotasunak. Nik
baneramatzen ia bi urte gauza aipaga-
rririk egin gabe, baxua etxean jotzen,
besterik ez. Galdetu zidaten ea eure-
kin jotzeko prest nengoen. Nik, era-
bakia hartu aurretik, abestiak entzun
nahi nituela erantzun nien. Gustatu
zitzazkidan eta ondoren baietza
eman nien.

**Eta orain, Replicantes duzu zeure
bostgarren proiektu musikala.**

Bai, gutxi gora behera. Korroskada,
Goar, Crines eta Ryrons-ekin egon
eta gero, hau bostgarrena dela esan
daiteke.

Zuena Rock 'n Roll-a baino zerbait

a la fuga taldearen
desagerpenak ez zion
lapurtu Alex-i Rock
'n Roll munduan jarraitzeko
ilusioa. Berehala Alfonso,
Aitor eta Javiren ondoan, abian
jarri zuen bere bigarren
proiektu musikala: Replicantes.
Egun hauetan Javik taldea utzi
ondoren, laukotea hirukote
bilakatu da. Hala ere hori ez
dute oztoporik izan lehenengo
CD-a kaleratu ahal izateko.

**Entzun dudanez abesti guztiak Alex-
ek idatzi ditu. Egia al da?**

Bai, normalean horrela gertatzen da.
Baina gero, lokalean, hiruron artean
bukutzen ditugu.

**Alex taldearen burua denez, inork
pentsa lezake "Replicantes" taldea "A
la fuga"ren jarraipena dela.**

"A la fuga" garaiko bi abesti berreskura-
tu ditugu eta, egia esan "A la fuga" ize-
narekin jarraitzea pentsatu nuen hasieran
-dio Alexek-. Baina orain gauzak era
ezberdinean gertatzen ari dira. Baxua eta

bar • restaurante
Portal del Rey 9
albéniz
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

intrales
BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

gehiago al da?

Rock 'n Roll-a da nagusi, baina ez diegu uko egiten beste zenbait erritmoei; Soul, Funky edo Flamenkoari adibidez. Nabaritzen da Alex Triana Memphis Express taldearekin dabilela.

Triana Memphis Express?

Bai, hiru lagun gara. Buleriak, Bossa Nova, Blues, Rock eta Flamenkoa jotzeko asmoz elkarturik gaude. Abesti batzu sortu ditugu, eta gainera Raimundo Amador eta Kiko Venenoren bertsioen bat ere egiten dugu. Orain baxujole eta "bailaora" batekin ikuskaria osatzea pentsatu dugu.

Zuen musika entzuterakoan badi-rudi The Rolling Stones taldea ez duzuela ahortzi?

Ez, inola ere ez. Niretzako (Alex) Stones handienak dira, baina hauek ez ditugu influentzia bakarra. Iggy Pop-en rock zuzenak islada nabarmena dauka gure estiloan.

Eta atera berrian duzuen CD-az, zer esan dezakezue?

Lehenengoz, hasieratik bukaerara arte guk geuk produzitutakoa dela. Zortzi abesti dira, hogeita hamar minutu. Esan liteke CD txiki bat dela. Bertsio bat grabatu dugu: Bob Marley-ren "Redemption Song". Besteak gureak dira. Bat, "Caballo Salvaje" izenekoa bi era ezberdinetan grabatu dugu: elektrikoa eta akustikoa.

Kolaboraziorik?

Bai, Javi-k pianoa jo du eta Iñigo-k, Crines taldekoa, harmonika.

Gustora emaitzarekin?

Bai.

Maketaren funtzioa beteko duen CD-a dela esan dezakezue?

Ez da maketa bat. Erregistratu dugu, eta grabazio bat erregistratzen duzun unean maketaren kondizioa galtzen du. CD-a grabatzerakoan soinu

hobeagoa lortu nahi izan dugu. Salgai duzue jadanik, bostehun ale kaleratu ditugu ea zer gertatzen den.

Zuen lehenengo taldeekin jasotako porrotek ez zaituzte atzera bota?

Ez, ezta pentsatu ere. Guk uste dugu hiru arrazoi direla nagusi musika munduan sartzea erabakitzen denean: lehenengoa neskak erakartzea (edota mutilak ere), bigarrena dirua irabaztea, eta azkena gustokoa duzula, maite duzula. Guk, momentuz, hirugarrenarekin nahikoa dugu.

Zer da zuentzat musikak eskain dezakeen gauzarik atsegina?

Zuzenekoak, jendea ezagutzea. Noizean behin musika egiten larrua joz baino gustorago sentitzen naiz ni (Alex).

Inoiz pentsatu al duzue bakarrik zaudetela?

Bakarrik? Ez. Egia esan Gasteizen ez dira asko gure estiloan aritzen diren taldeak, baina badago guztiok lotzen gaituena: musika hain zuzen ere.

Abesti berri bat konposatzerakoan komertziala izango den kontutan al duzue?

Ez horrekin ez dugu denborarik galtzen. Gustatzen zaigu? Bai, aurrera bada.

Ez zaituzte tristetzen zuen musika Euskal Herriatik kanpo harrera hobeagoa izan zezakeela pentsatzeak?

Beno, gu saiatuko gara kanpora ateratzen, baina ez pentsa!. Batzutan gertatzen da Euskal Herriko taldea izateak jendea erakartzen duela.

Orduan uste duzue zuen Rock 'n Roll-ak merezi duen lekua topatuko duela gure herrian?

Ez dugu uste jarraitzaile asko izango dugunik, baina zintzoak izango direla bai.

Txabi Arnal Gil

gurutze grama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

ZE HARRETARA:

1. Duela gutxi finala jokatu duen pilotaria. Antolatu. 2. Eramaten nauzue. 3. Lurra lantzeko tresna. 4. Lanaren Nazioarteko Erakundea. Garbitu. 5. Itanoa. 6. Zazpi egun. Andre zahar. 7. Ezereza. (Ald.) Arabako alderdi foruzalea. 8. Jantzi bat. Erretzeko. Amnesty Internationa. 9. Nahikariz, kapritxo. 10. Kasik. Alkiler.

Irlandako talde armatua. Oinez ibiltzearen onomatopeia. 5. Alde, eskapo. (Ald.) Egile atzizki. 6. Poliki. Abere bat. 7. Nora atzizki. Ukatu aditzaren infinitiboa. (Ald.) Egun ez. 8. Arabako mendate bat. Galdetzaile. 9. Aditz bukaera. Ikusten ez duena. 10. Udako Euskal Unibertsitatea. (Ald.) Joan aditzaren erroa. Ikas eta Ari

GOITIK BEHERA:

1. Lo egitearen ondorioa. Materia. 2. Beiak zaintzen dituen. Jateko nahiz hitz egiteko. 3. Ahalmena. 4.

KLASEAK

matematika

fisika

kimika

biologia

geologia

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54



Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29

Astrologi aholkularitza
Kinol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Emeflexoterapia
Jhasanoak



ARABAKO TXAPELDUNA ETA TXAPELDUNORDEA

elkarri mokoka

ASIER IRIONDOK lortu zuen txapela joan den hilaren 5ean jokatu zen Prudentzio Deuna eta Estibalitzko Ama bertso txapelketaren finalean. Bigarren eta hirugarren Asier Otamendi eta Zigor Enbeita izan ziren. Publikoak eman ohi duen xelebreenaren saria txapeldunak eraman zuen eta bertsorik onena Eñaut Agirrek bota zuen. Aipaturiko lau bertsolari hauetaz gain Ricardo Glez. de Durana eta Dani Castaño izan ziren finalean. GEU GASTEIZek lehenengo eta bigarren postua lortu zuten bertsolariak elkartu eta elkarriketan jarri ditu. Ez dute honako aukera hau alperrik galdu elkarri nahi diotena esateko.




Asier Otamendi: Zorionak Iriondo!

Asier Iriondo: Eskerrik asko. Uste duzu merezi nuela?

A O: Bai, Saio txukuna egin zenuen eta Txapela zurea da. Eta zuk bestean saioa nola ikusi zenuen?

A I: Denetarik izan zen. Batzuk urduri besteak ez hainbeste. Zu urduri al zeunden?

A O: Egia esan bai. Nahikoa urduri nengoen eta ez nuen asko gozatu nire bertsoekin.



APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

**pena da
eskolatik kanpo
aukera handiegirik
ez izatea**

A I: Zer esan nahi duzu, urduri joan ez bazina txapela lortuko zenukeela?

A O: Ez, ez dut hori esan. Ez zaitez gaiztoa izan. Baina, beno, zure historia eginez, nola hasi zinen bertsotan eta zein helburu duzu mundu honetan?

A I: Duela lau urte hasi nintzen Gasteizko bertso eskolan. Xabi Rico nuen irakasle eta mundu honetan dudan helburu nagusia, miss txapeldunek esan ohi duten bezala, gerra guztiei bukaera ematea da. Eta zurea?

A O: Ezkondu eta seme-alaba ugari izatea. Bestela, zer moduz ikasketak?

A I: Ni bezain ondo. Beno, eta

nor izan duzu zuk bertso irakasle?

A O: Xabi Rico.

A I: Jode! Xabi Rico hori leku guztietan dago. Zer, hitzegingo dugu Arabako bertsolariei buruz?

A O: Hori da! Egoera zaila den arren gazteak badatoz.

Esaterako, Irati, Izotz, Ainara, Aitziber, Ibai, Ainhua... eta gu geu ere gazteak gara.

A I: Bai, baina pena da eskolatik kanpo aukera handirik ez izatea. Gauzak ondo eginez gero bertsolari handiak sor daitezke. Esaterako, Arabako bertsolari gazteen topagunea, Barrian egin zena alegia, oso ideia ona da bertsolari gazteek gun bat lor dezaten.

A O: Bai, hala da! Horrelako gauzak ohitura bihurtu behar dira. Aizu! Eta zuk ikusten al duzu hauen artean Arabako txapeldunik?

A I: Bai.

A O: Nor?

A I: Bai esan dut eta kito!



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



ARETXABALETAKO LAGUNAK



ELKARTEZ ELKARTE gabiltzala, oraingo honetan hiritik kanpo dagoen batera bisita egitea erabaki dugu. Aretxabaletara abiatu gara, iazko azaroan sortu zen "Aretxabaletako lagunak" elkartera, hain zuzen ere. Bazkideak ez dira Aretxabaletakoak baina bertan biltzen zirenez egokia iruditu zitzaizen izen hori elkartearantzat.

Aretxabaletara hurbildu eta aldapa bat igo ondoren elkartera iritsi ginen. Sartu eta berehala garagardoa eskaini eta elkartea erakutsi ziguten. Oso leku handi eta polita da eta guztia berri-berria dago. Bi telebista ere badituzte, "horrela nahi duenak futbola eta nahi duenak txirrindularitza ikus dezake, adibidez" azaltzen digute Javier

Agirrebeitia presidenteak eta Nino bazkideak.

NOIZ ETA NOLA SORTU ZENUTEN ELKARTEA?

Lokala erosi nuenean -dio Javierrek- nire hasierako asmoa jabetxe bat jartzea zen, baina kuadrilako lagun batzuekin hitz egin eta gero, elkarre bat osatzea erabaki genuen. Nik neuk hartu nuen nire gain lokala erostearen ardura eta horrela hasi ginen. Lehen uneak gogorak izan ziren, diru aldetik gehienbat, baina egun martxan dago eta 28 bazkide gaude. Bazkide gehienak gazteak eta enpresagizonak edota komertziantek gara.

NAHIZ ETA BERRIA IZAN, BESTE ELKARTEAK BEZALAKOA DA?

Bai, baina badauzkagu berezitasun batzuk ere. Batetik jende gaztea erakarri nahi genuen eta bestetik emakumeen presentzia bultzatu nahi genuen, sukaldara ezik egunero elkartera sartzeko aukera emanez.

• AGENDA • EKAINA • AGENDA • EKAINA • AGENDA • EKAINA • AGENDA •

GEU rekin mendira aizkorri

IRTEERA:

goizeko bederatziretan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Autoz joango gara.

ITZULERA:

arratsalde-iluntzean

ADI: sasoi honetako azken irtenaldia da. Bazkaria egingo dugun arren, hamaiketako ekarri. Ez ahaztu oinetako egokiak eta umorea!

eguna eta ordua egiaztatzeko 22 21 53 telefonora deitu.

IBILBIDEA:

Urkilan (Zalduondoko sondeo plataforma) utziko ditugu autoak eta handik oinez goraino. Itzultzean, bazkaria San Adriango aterpetxean edo Zalduondon

*ekainaren 22an,
igandea*



In-Fragantik

aurkezten du
Hamaika Trikimailu

Principal Antzokian
ekainaren 12an
arratsaldeko 8 t'erdietan

SARRERAK:

eserlekua:	1.200
1. anfiteatroa:	900
2. anfiteatroa:	600

GASTEIZ
PIPERMINA
DENDA

arropa
eta
osagarriak



KUTXI, 81

elkarte BERRIAN



OSO LOKAL HAUNDIA ETA EDERRA DAUKAZUE...

Bai, gainera ondoko lokala eta goiko pisua ere elkartearenak dira. Gure bilerak eta gainerako gauzak egiteko jangela pribatuak egiteko asmoa dugu. Sukaldea, aukeran, behar duguna baino txikiagoa geratu da, baina ondo moldatzen gara. Dena den, ikus dezakezuenetz, badugu beste elkarteetan aurkituko ez duzun

zerbait: erretegia. Oso ondo datorkigu, ze haragia erretzea erraza denez, sukaldean oso trebea ez bazara ere, zerbait prestatzeko aukera daukazu.

ZEIN DA ELKARTEAN GUSTOKOEN DUZUEN PLATERA?

Erretegia daukagunez, kiloko txuletak eta "chuletilas al sarmiento" oso ondo egiten ditugu.



ELKARTEAK KANPORA BEGIRA EKINTZARIK ANTOLATZEN AL DU?

Momentuz ez baina etorkizunean zerbait egin nahi genuke, gure asmoa hori da behintzat. San Prudentzioko mus txapelketan gure ordezkariak izan genituen.

Toki eza dela eta, ezin izan dugu hemen dena azaldu, halere, gauza pare bat esan behar dizuegu: elkartearen euskerarekin harreman gutxi duten arren "seme-alaba euskaldunen gurasoak gara" esan digute harrotasun ukitu batez. Ondo hartu gaituzte eta afaltzera ere gonbidatu gaituzte. Hala izan dadila. Hurrengo batean baieztatuko dizuegu hori.

David Alvez

• AGENDA • EKAINA • AGENDA • EKAINA • AGENDA • EKAINA • AGENDA •

kontzertuak tabernetan

astelehenak tronor tabernan

ekainak 3: Misión Imposible

10: zehaztu gabe

17: La Pitaja Blues

Band

24: zehaztu gabe

astearteak el parral tabernan

ekainak 4: Replicantes

11: Trikitrixa Kontrairo

18: Barraka Selva

25: Reverendo Parker

asteazkenak hangar tabernan

ekainak 5: Josetxo Bitxo

12: Trio Georgia

19: zehaztu gabe

26: Ale Hop

ostegunak tuerto tabernan

ekainak 6: Ale Hop

13: Nacido pa'engañar

20: The Brontes

27: Los Amigos del

Cañamo

ostiralak lodegoia tabernan

ekainak 3: Misión Imposible

10: zehaztu gabe

17: La Pitaja Blues Band

24: zehaztu gabe



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran •




OHARRA:

Hona hemen aurreko hilean plazaratutako komiki bera. Izan ere, akats larria egin genuen maiatzako zenbakian eta, ondorioz, komikiaren zirriborroa eman zen argitara, atera behar zenaren orde. Beraz, bihoakie hemendik gure barkamena komikilariari eta komikizale guztioi

DUTXAREN ARRISKUAK





Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	

